

Puntu beltzak

Nagore Amondarain



Ebanoa Afrikan puntu beltz bat izan daitekeen moduan, hango gizon eta emakumeak beste puntu beltz handi bat dira mundu arranguratsu honetan. Malira arteko bidaia hasi genuen duela bi urteko Gabonetan, Euskal Herrian bizi diren Maliko bost lagunekin batera, kotxez. Emakume bakarra nintzen, beraz, kideetatik ahulena afrikarren begietan. Saharan barna eramango gintuen bidaia amaitu ezingo nuenaren ustea zuten haiek. Azkenean, euren pare, kotxea gidatzen eta antzerakoetan jardun nuen, baina besteen begiek ni ninduten jopuntu, arreta oro niregana zuzendurik zegoen, horrelakoa bailitzan Malin egunerokotasuna. Hara iritsitakoan, ordea, emakumeek leku berezitua dutela konprobatu ahal izan nuen. Berezitua esan dut; bakartua esatea egokiagoa litzateke, agian.

Ezin esan bidaiaren helburua gure lagun Abdulairen ezkontza ikustea izan zenik, baina horretara ere joan ginen hein handi batean. Nire harridurarako, ezkontza aurreko gauean, nire iritzia behar zutela esan zidaten gela txiki batean bilduta zeuden familia bereko sei gizonak. Galdera eta erantzun ugari izan ziren ezkontza aurreko azken gau hartan. Poligamoa edo monogamoa izango ote da gure Abdulai? Neure iritzia eman nien, Abdulairenarekin bat zetorrena. Gizon haiek, baina, ezin zezaketen ulertu nola gizon batek, ezkon berritan, hainbeste botere eman diezaiokeen bere emazteari. Horregatik bat zetozen poligamiarekin, hura baita emakumeak sumisio egoeran mantentzeko modurik egokiena.

Ezkontza egunean norekin ezkonduko zaren zehazten duzun moduan, zein erataria ezkonduko zaren ere erabaki beharra dago. Tokiko legediak gizonaren esku uzten du emakumearen gaineko erabaki oro, emakumea erabakiaren hartzaile soilaz izatera mugatuz.

Atzerrira joandakoen eraginez, akaso denborarekin joango dira aldatzen jaioterrikoen baloreak. Argi izan behar dugu, ordea, toki horietatik gure artera etorritakoek geure begirunea behar dutela, ezinbestean, geure baldintza berberetan hazi daitezela. Alegia, ez daitezela izan puntu beltza handi bat gure herri eta hirietan. F